# BESTELAKO XEDAPENAK

## JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

## 1150

*EBAZPENA, 2011ko abenduaren 29koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2029/11 prozedura arruntari buruzko administrazio-espedientea bidaltzea xedatu eta interesaturik egon daitezkeenak epatzen dituena.*

2029/11 administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokion espedientea –prozedura arrunta– bidaltzeko eskatu du Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak. Errekurtso hori Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak 2011ko ekainaren 27an emandako Ebazpenaren aurka jarri zen. Inpugnaturiko Ebazpenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko 2008ko enplegu publikorako eskaintzan, menpekoen kidegoan sartzeko hautaketa-prozesuko hautatutakoen eta esleituko diren lanpostuen behin betiko zerrendak ematen ditu aditzera.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedatuta, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak eskatutako administrazio-espedientea bidaltzea.

Bigarrena.–Aipatutako espedientean interesen bat izan dezaketenak epatzea, bederatzi eguneko epean ager daitezen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salara, 2029/11 prozedura arruntean alderdi modura aurkezteko aukera izan dezaten.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen iragarki-tauletan argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 29a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.